

2005EKO ABENDUAREN 15EAN SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE
ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hamabost

HILABETEA: Abendua

URTEA: Bi mila eta bost.

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

BILDUA

Lehendakaria: Pello Garaialde Goikoexea, Beasaingo ordezkaria

Ordezkariek: Jose Mari Aranburu, Altzagako ordezkaria
Jasone Aranburu, Aramako ordezkaria
Rosa Goñi Jaca, Ataungo ordezkaria
Prudencio Mujika Albisu, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Iñigo Izagirre Erauskin, Gabiriko ordezkaria
J. Ignacio Irastorza Garmendia, Gaintzako ordezk.
Daniel Etxeberria Pascual, Itsasondoko ordezk.
Kepa Goenaga Alikostes, Lazkaoko ordezkaria
Vicente Garmendia Martinez, Legazpiko ordezkaria
Jose Luis Ormazabal Garmendia, Ordiziko ordezkaria
Manuel Iturrioz Pérez, Ordiziko ordezkaria
Jose Lorenzo Murua, Ormaiztegi Udala
Itziar Agirre Berriotxoa, Urretxuko ordezkaria
Damian Garmendia Etxabe, Zaldibiako ordezkaria
Jon Ormazabal Berasategui, Zegamako ordezkaria
Antonio Garcia Agirre, Zeraingo ordezkaria
Fco Javier Toquero Miguel, Zumarragako ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo ordezkaria
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Xabier Ariztimuño Iparragirre Idiazabalgo ordezkaria
Juan Ramón Larrañaga Mercero, Legazpiko ordezkaria
Jose Mari Lasa Sarasola, Legorretako ordezkaria
Angel María Mujika Goya, Mutiloako ordezkaria
Txomin Mendoza Pérez, Olaberriko ordezkaria
Jon Agirre Aburuza, Segurako ordezkaria
Peio González Argomaniz, Urretxuko ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran parte hartzen du, ahotsarekin, baina botorik gabe, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Sasieta Mankomunitateko zerbitzuburuak.

1.- AURREKO AKTAK. 2005eko uztailaren 13an egindako akten berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- SASIETA ZABORTEGIAREN BIZITZA. Sasieta zabortegeari geratzen zaion bizitza eta istea espero den datari buruzko informazioa.

Sasieta zabortegean topografia altxaketa berri bat egin da 2005eko urriaren 25ean ERAIN ESTUDIO TÉCNICO S.L.ren bidez.

Altxaketa hori oinarri bezala hartuta zabortegearen edukieraren kalkulua egin da.

- Edukiera gordina 891.108 m³-takoa da
- Edukiera garbia 757.442 m³-takoa da, zaborrak estaltzeko lurra eta zepak, itxiera materialak eta bidea deskontatuta (-%15).

Zabortegearen **bizi-iraupena** kalkulatzekoan kontutan hartu dira etxetako zaborrak, obratako hondarrak eta araztegiko loihak.

Urtez urte geroz eta zabor gehiago botatzen da zabortegean. Hori dela eta hiru eszenaotoki aurrikusi dira: urteko igoera +%1 ("Baikorra"), +%3 ("Moderatua") eta +%5 ("Errealista").

1999/31/CE Direktibak esijitutako **legezko itxiera: 2009ko uztailak 16**
Zabortegearen betetze datak:

- Eszenategi "errealista": **2012ko martxoa**
- Eszenategi "moderatua": **2012ko abuztua**
- Eszenategi "baikorra": **2013ko otsaila**

3.- MODULO FOTOVOLTAIKOEN MUNTAKETA: Tentsio baxuko sarera konektatutako eguzki-energia fotovoltaiko bi instalazio Legazpiko ontzien bereizte plantako eta Urretxuko garbiguneko teilatuan muntatzeari buruzko informazioa.

5 kWko eguzki energia fotovoltaikoko 2 instalazio lizitatu dira, bata Urretxuko garbigunean eta bestea Legazpiko ontzien bereizte plantan jartzeko.

Bi instalazio hauek eskatzen duten inbertsioa 65.092 €-takoa da (B.E.Z. sartu gabe).

Bi dirulaguntza jaso dira:

- Energiaren Euskal Erakudetik, "*Aprovechamiento de Recursos Energéticos Renovables 2005*" izeneko programatik: 15.120 €
- Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioko Instituto para la Diversificación y Ahorro Energético (I.D.A.E.) erakundetik, "*Plan de Fomento de las Energías Renovables*" izeneko programatik: 9.405 € jaso dira fondo galdura eta aparte, ICOREkin formalizatutako beste 28.224 € mailegu modura. Mailegua 10 urtetara da eta bere itzulera instalazioek sortutako elektrizitatea salduz gauzatuko da.

Ondorengo taulan adierazten den bezala, dirulaguntzak kontutan izanda, bi instalazioen kostu garbia 12.343 €-tako izango da. Kostu hori Altxortegiko gerakinarekin finantzatu da.

Inbertsioa	-65.092
E.V.E.	+15.120
I.D.A.E.	+9.405
I.D.A.E.	+28.224
Eraitza	-12.343

4.- PABILOI BERRIA.. Besaingo 8. Sektorean zerbitzuetako pabiloi berria 2006an eraikitzeari buruzko informazioa.

5.- TASAK 2006: Beasaingo "Sasieta" zabortegean eta Urretxuko garbigunean zerbitzu publikoak eman eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskal arautzailearen 2005erako tarifa eranskina onesteko proposamena.

Proposamena honako hau da:

"BEASAINGO "SASIETA" ZABORTEGIAN ETA URRETXUKO GARBIGUNEAN ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

I.- XEDAPEN OROKORRAK

- 1. artikulua Sasieta Mankomunitateak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, Beasaingo "Sasieta" zabortegean eta Urretxuko garbigunean amankomunitateko jarduerak burutu eta zerbitzu emateagatik ordaindu beharreko tasak ezarri eta esijitzen ditu.*
- 2. artikulua Ordenantza honen ezartze-eremua Sasieta Mankomunitateko eskubide osoko kide diren udalei mugatua dago, hau da, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.*

Edonola ere, 1.997ko apirilaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak eta Sasieta Mankomunitateak izenpetutako Lankidetzeta-Hitzarmenean jasotako konpromezuak betez, Deba Garaiko udalen Mankomunitateak eta Tolosaldeako udalen Mankomunitateak Beasaingo "Sasieta" zabortegeira ekarritako hiri hondakinen tratamendu zerbitzua ematen denean ere, Ordenantza hau aplikatu ahal izango da.

II.- ZERGAGAIA

- 3. artikulua Beasaingo "Sasieta" zabortegean edota Urretxuko garbigunean zerbitzuak eman eta jarduerak burutzeak eraten du zergagaia, hauek subjektu pasiboari partikulari eragin edo onura badakarkioten, beraiek zuzenean edo zeharka motibatu dituztenean, honela beraien egintza edo hutsegiteak Mankomunitatea behartzen dutelarik ondorengo jarduerak burutu eta zerbitzuak eskaintzera:*
 - 1. Beasaingo "Sasieta" zabortegean hiri hondakinak uztea eta tratatzea.*
 - 2. Beasaingo "Sasieta" zabortegean zenbait hondakin inerte uztea eta tratatzea.*
 - 3. Urretxuko garbigunean gehienez 6.000 kg.ko pisu gordina duten ibilgailutan entregatutako hiri hondakinak eta hondakin inerteak utzi, aldi baterako gorde eta ondorengo kudeatzea.*

III.- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua *Tasen subjektu pasiboak izango dira, zergadun bezala, pertsona fisiko zein juridikoak, jabegoa hartu gabeko herentziak, ondasun-elkarteak eta nortasun juridikorik ez duten gainerako entitateak, ezargarria den batasun ekonomikoa edo ondare banandua eratzen dutenean, zergagaita eratzen duten zerbitzu eta jarduerak eskatu edo haien onura edo eragina jasaten badute.*

Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

IV.- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

5. artikulua *Urretxuko garbigunean emandako hiri hondakinak eta hondakin inerteak utzi, aldi baterako gorde eta kudeatzeko zerbitzua doan izango da eta Ordenantza honetan aurrikusitako tasak ordaindu beharrik ez da izango, ondorengo kasuetan:*

- a) *Entregatutako hondakinak birziklatzera edo gestio berezira zuzentzeko honako materialak direnean:*
- *Lorategietako eta inausketako hondakinak*
 - *Egurak (paletak, altzariak, kutzak, oholak etab.)*
 - *Plastiko birziklagarriak (polietilenoazko ontziak, film motako plastikoa...)*
 - *Papera eta kartoia*
 - *Burdinkiak eta txatarrak*
 - *Erabilitako arropa*
 - *Sukaldeko olioak*
 - *Beirazko ontziak*
 - *Aparatu elektrikoak (ordenagailuak, telebistak...)*
 - *Pilak eta poltsikoko telefonoak*
 - *Autoetan erabilitako olioak*
 - *Autotako bateriak*
 - *Etxetako hondakin arriskutsuak: pinturak, bernizak, kolak, disolbatzaileak, fluoreszenteak eta lanparak, aerosolak etab.*
- b) *Etxeko gauzak (koltxoiak, sofak, somierrak...)*
- c) *Entregatutako hondakinak eraikuntza alorreko hondar inerteak, birziklatu ez daitezkeen zurkiak edota birziklatu ez daitezkeen plastikoa hondarrak direnean, kantitate txikitan, zorrozki etxetan sortuta eta noizean behin eta inolako aldizkotasunik gabe garbigunean entregatzen direnean.*

V.- OINARRI EZARGARRIA

6. artikulua *Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Ordenantza honetako Eranskinean jasotakoaren arabera.*

VI.- KUOTA

7. artikulua *Zerga-kuota, oinarriari dagokion tarifa aplikatuz lortutako kantitatea izango da.*

VII.- SORTZAPENA

8. artikulua Tasak sortzen dira:

- Zerbitzua ematen hasten denean, Mankomunitateak ekintza bat egin edo espediente bat hasteko eskaera aurkezten denean, edo jarduera amankomunatua burutzeko obligazio legalaren aurrean. Eskaera aurkeztean tasa aurrez ordaintzea exijituko da eta, hala badagokio, seinalatutako obligazioak betetzeko bermeak eratzea ere bai.
- Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, tasaren izaerak bere aldizkakotasuna exijitzen duenean.

VIII.- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

9. artikulua Sasieta Mankomunitateak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du.

10. artikulua Tasak ordainduko dira:

- a) Zerbitzu-emate kasuan, zerbitzua eman aurretik Mankomunitateko kutxetan zuzenean gordailua eginez, beti ere adierazitako gutxieneko diru-kopuruz.
- b) Beren izaeragatik aldez aurreko gordailua egiteko aukera ematen ez duten zerbitzu-emate kasuan, Administrazioak dagokion kitapena aurkezten duenean.

Ordainketa egiteko borondatezko epea, hilabete batekoa izango da likidazioa jakinarazten den ondorengo egunetik aurrera.

Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren arabera, adierazitako epe hori ordainketa egin gabe igaroz gero, premiamendu bidezko behartze-ihardunbideari ekingo zaio besterik gabe eta ordaindu ez diren kuotak dagokien gainordainarekin kobratuko dira.

- c) Zerbitzuak emateagatiko tasen hileroko zenbatekoa 100 euro baino gutxiago denean, Mankomunitateak tasa eskudirutan ordaintzea exijitu ahal izango du zerbitzua ematen den momentuan.

11. artikulua Subjektu pasiboari egotzi ezin diren arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera eman edo garatzen ez denean, dagokion zenbatekoaren itzulketa egingo da.

12. artikulua Ordenantza honetan araututako tasa hauei aplikagarriak zaizkie Gipuzkoako Lurraldeko Zergen Foru Arau Orokorrean, Bilketa Arautegian eta bere garapenerako araudian finkatutako kudeaketa, likidazio, inspektzio, bilketa, arau-hauste eta zehapenei buruzko arauak.

IX.- AZKEN XEDAPENA

13. artikulua Ordenantza hau, bere eranskina eta guzti, 2006 urteko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta bere indargabetzea edo aldaketa erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

ERANSKINA: EZARRITAKO TARIFAK

HIRI HONDAKINEN TRATAMENDU ZERBITZUA, BEASAINGO "SASIETA" ZABORTEGIAN:

"Hiri hondakin"aren definizioa: etxebizitza partikularretan, dendetan, bulegotan eta zerbitzutan sortutako hondakinak eta beren izaerarengatik edo konposaketarengatik lehen aipatutako toki edo ihardueretan sortzen diren hondakinekin bateragarriak litezkeen bestelakoak, beti ere arriskutsu izendapena jasotzen ez duten hondakinak direlarik.

- Etxetako zabor-bilketatik datozkeen hondakinak
- Azoketako hondakinak
- Etxetako ontzien sailkatze planten erreus zatikia.
- Landare-hondakinak, berdegunetako mantenimendu lanetan sortutakoak, konpostatzeko balio ez dutenak.
- Akabatutako animaliak
- Konfiskatutako elikagaiak edota egoera txarrean daudenak
- Elikagai arloko industrietako kosko eta hondarrak
- Haragi-industrietako eta hiltegitako hondakinak
- Janaridenda, supermerkatu eta merkatalgune handietatik datozkeen hondakin organikoak
- Beste zenbait hiri hondakin

Tarifa aplikagarria: 43,28 €/Tonako (19,24 € zabortejiaren ustiaketara zuzenduak + 24,04 € 1999/31/CE Direktiba Betetzeko Berme-Fondorara zuzenduak).

Bolumen handiko hondakinen tratamendua, esate baterako etxetako altzari, tresna elektriko eta baliorik gabeko bestelako traste zaharren tratamedua %50 handituko da ustiaketa zuzendutako tarifa zatian eta beraz, tarifa aplikagarria honako hau izango da: **52,90 €/Tonako** (28,86 € zabortejiaren ustiaketara zuzenduak + 24,04 € 1999/31/CE Direktiba Betetzeko Berme-Fondorara zuzenduak).

HONDAKIN INERTEEN TRATAMENDU ZERBITZUA, BEASAINGO "SASIETA" ZABORTEGIAN:

- Moldeagintzako hareak

Gehienez onartu daitekeen hare-kantitatea, bere kalitatea eta hornidura-maiztasuna mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek erabakiko dute, aukeraketaren ondorioz zabortegean suteen aurka edota estaltze lanetan erabiltzeko harerik egokiena aukeratu etapilatzen.

Tarifa aplikagarria: 9,00 €/Tonako

HIRI HONDAKINAK ETA HONDAKIN INERTEAK UTZI, ALDI BATERAKO GORDE ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA, URRETXUKO GARBIGUNEAN:

- Eraikuntza alorreko hondar inerteak: **22,20 €/Tm**
- Birziklatu ez daitezkeen zurkiak: **64,50 €/Tm**
- Birziklatu ez daitezkeen plastikoak: **85,00 €/Tm**
- Autotako gurpilak: **1,10 € / gurpil bakoitzeko**
- Jolas eta aisialdirako makinak eta gaiak (tabakoa, kafea, edariak, janariak etab.) saltzeko makina automatikoak: **5,60 € / makina bakoitzeko**

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 17
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 2 (Urretxuko eta Itsasondoko ordezkariak)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Beasaingo "Sasieta" zabortegean eta Urretxuko garbigunean zerbitzu publikoak eman eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskal arautzailearen 2004ko tarifei hasierako onespina ematea.

Bigarren. Tarifa horiek 30 eguneko epean jendaurrean jartzea, iradokizun edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko eta epe horretan ez badira aurkezten, erabakia behin betikotzat hartuko da.

6.- AURREKONTUA. 2006. ekitaldirako ohiko aurrekontu proiektuaren eta aurrekontua gauzatzeko arauaren onesteko proposamena.

Ezagutzera ematen da 2006. urterako aurrekontuaren gastu eta sarreraren egoera.

SARREREN EGOERA		
Kap.	Deitura	Euro
I	Zuzeneko zergak	0
II	Zeharkako zergak	0
III	Tasak eta bestelako sarrerak	3.176.120
IV	Transferentzia arruntak	2.148.910
V	Ondare-sarrerak	81.140
VI	Inbertsio errealeen besterenganaketa	0
VII	Kapital-transferentziak	0
VIII	Aktibo finantzarioak	300.000
IX	Pasibo finantzarioak	2.312.680
	GUZTIRA	8.018.850

GASTUEN EGOERA		
Kap.	Deitura	Euro
I	Pertsonal-gastuak	339.630
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	3.121.570
III	Finantza-gastuak	38.790
IV	Transferentzia arruntak	0
VI	Inbertsio errealak	2.701.660
VII	Kapital-transferentziak	0
VIII	Aktibo finantzarioak	1.652.420
IX	Pasibo finantzarioak	164.780
	GUZTIRA	8.018.850

Jarraian ezagutzera eman da, aurrekontua gauzatzeko araua:

“1. artikulua.- AURREKONTU OROKORRAREN EDUKIA

Sasieta Mankomunitateko Aurrekontu Orokorra **8.018.850 euro**takoa da. Sarrerak eta gastuak berdinak dira.

2. artikulua- ZORPETZE MUGA

Mankomunitateak epe luzera eginiko zorpetze eragiketen ondorioz sortutako zor biziaren zenbateakoa, dokumentu bidez edozein modutara azalduta ere, 2006ko abenduaren 31n **2.312.680 euro**tako kopurua ezingo du inolaz ere gainditu.

3. artikulua- KREDITUEN ERREGIMEN OROKORRA

Kredituen arteko binkulazio maila

Gastuetarako kredituak Aurrekontu Orokorrean eta ondoren, behar bezala onetsitako aldaketetan baimenduak izan diren xederako erabiliko dira soilik.

Mankomunitateko Aurrekontuan baimendutako kredituak izaera mugatzaile eta binkulantea izango dute, ondoren adierazitako binkulazio mailaren arabera:

- Kapituluak, perstonal gastuei dagokien gastuetan.
- Gastuen 3. eta 9. Kapituluak elkarrekin.
- Azpiprograma funtzionala (5 digitu) eta kapituluak, gastuen egoerako gaineratiko kapituluetan.

Handitu daitezkeen kredituak

Mankomunitateko gastuen aurrekontuko partida hauek handitu daitezke, bakoitzarentzat egokitzen den finantzaketaren arabera.

HANDITU DAITEZKEEN KREDITUAK		FINANTZAKETA -	
PARTIDA	HASERAKO AURREKONTUA	PARTIDA	HASERAKO AURREKONTUA
226-442-12-03	39.570	396-442-12-03	20.630
		481-442-12-01	1.500
861-442-16-02	300.000	560-442-16-01	5.860
861-442-19-02	1.616.560	560-442-19-01	50.150

Onespena kredituen habilitazio espediente bidez egingo da eta onespena Lehendakarian egingo du.

4. artikulua.- KREDITUEN ALDAKETAREN ERREGIMENARI APLIKAGARRI ZAION ARAUDIA.

Aurrekontuko kredituak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-entitateen aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua ezarritakoaren arabera aldatu ahal izango dira.

Kreditu aldaketako proposamenek afektatutako programa funtzionala zein den eta egin behar diren ekimenetan zein lortu nahi diren helburuetan eragina zein den adierazi beharko dute, eta hala behar izanez gero, baita dagokien adierazlearen zenbateakoa eta epealdia ere.

Espedienteak ondorengo ataletan araututako onespeneko izapideen eraginpean jarriko dira:

Kreditu habilitzioa

Aurrekontuaren sarreraren egoeran aurreikusi gabe lortutako sarrerek gastuen aurrekontu barruan kredituak sor ditzakete.

Habilitziorako gai diren sarrerek 21/2003ko Foru Arauako 31.2 artikuluan ezarritakoak dira.

Lortutako sarrerak finalista izaera dutenean habilitazioa Mankomunitateko Lehendakariak onetsiko du eta gaineratiko kasuetan Batzorde Errektoreak.

Kreditu transferentzia

Urteko Aurrekontuan, Lehendakariak izango du transferentzia onesteko eskumena, transferentzia programa funtzional bereko partiden artean edota programa ezberdinen artean ematen denean, jatorriko programaren eta norakoaren arteko aldaketen bariazio metatua haseran aurrikusitako kontsignazioa %25ean gainditzen ez denean.

Edonola ere Batzorde Errektoreari dagokio inbertsio errealeen kontsignazioa gutxitzen dutren transferentziak.

Kreditu gehigarriak

Ordainketa kreditua kontsignaturik ez duten gastuak egin behar badira edota egonda ere, nahiko izango ez balitz eta handitu ezina, orduan 21/2003ko Foru Arauako 34. artikuluan ezarritakora egokitu beharko da.

Mankomunitateko Lehendakariak onetsiko ditu kreditu gehigarriak, metatuta Aurrekontuan urteko %5eko igoera suposatzen ez dutenean.

5. artikulua. – GASTUAREN EXEKUZIOA

Gastuen Aurrekontuko gestioaren faseak

Mankomunitateko gastuko aurrekontuaren gestioa honako fase hauetan egingo da:

- a) Gastuaren baimena
- b) Gastuaren erabilera edo konpromezua
- c) Obligazioaren onarpena eta likidazioa
- d) Ordainketa agindua

Gastuen baimena eta erabilera

Urteko 12.000 euratak-tako kantitatea gainditzen duten elkarren artean homogeneousak diren ondasun eta artikulutako gastuak baimentzeak eta erabiltzeak Mankomunitateko Kontuhartzaitzaren aurretiazko fiskalizazioa esijituko du, gastuen "B" (Baimena) eta "E" (Erabilera) fase kontableak kontabilizatuz.

Era beran, goian aipatutako zenbatekoa gainditzen duten eta egungo araudiaren arabera kontratazio prozesurik eskatzen ez duten gastuen kasutan, ahal izanez gero, eskaintza bat baino gehiago eskatuko dira.

Mankomunitateko Lehendakariari dagokio gastuen baimena eta erabilera ematea.

Obligazioen onarpena

Gastua behin fiskalizatu eta gero, Mankomunitateko Lehendakariari emango zaio dagokion onespena jasotzeko.

Ordainketa agindua

Mankomunitateko Lehendakariari dagokio ordainketa aginduen erlaziotan gauzatutako ekintza administratibo bidez, ordainketak agintzea.

5. artikulua. – PERTSONALARI AURRERAKINAK EMATEA

“Pertsonalari aurrerakinak emateko” kontusailetako kredituaren erabilgarritasunak, Arau honen barruan **I Eranskina** izenarekin jasotzen den “Langileei lehen etxebizitza erosteko eta kontsumorako maileguak emateko” Araudian xedatutakoaren arabera dagokion espedientea izapidatzea beharrezkoa izango da.

I ERANSKINA

SASIETA MANKOMUNITATEKO LANGILEEI LEHEN ETXEBIZITZA EROSTEKO ETA KONTSUMORAKO MAILEGUAK EMATEKO ARAUDIA.

I.- ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. atala

Araudi honen helburua zera da: Sasieta Mankomunitateko langileei ohiko etxebizitza erosteko eta kontsumorako maileguak emateko arauak jartzea.

II. ATALBURUA. MAILEGUA JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTEN LANGILEAK.

2. atala

Honako arau hauek, Sasieta Mankomunitatearen zerbitzu-jardunean ari diren langileei aplikagarri izango zaizkie, ondorengo izaera hauetakoren baten jabe izanez gero:

- a) Karrerako funtzionarioak.
- b) Lan Zuzenbidearen mendeko langile finkoak.
- c) Sasieta Mankomunitatean zerbitzuak prestatzen gutxienez urte bete era jarraikian egin duela egiaztatzen duten beste pertsona batzuek, aldez aurretik Lehendakaritzak egindako aldeko txostena izanda.
- d) Sasieta Mankomunitatean zerbitzuak prestatzen ari diren langileek eta aurretik aipatutako a), b) eta c) ataletan deskribatutako baldintzetako ezein ere ez dutenek, gehienera ere duten soldataren bi hilabeteko kopurua adinako kontsumo-mailegua hartzeko eskubidea izango dute, aldez aurretik Lehendakaritzak egindako aldeko txostena izanda.

III. ATALBURUA. KONTSUMO-MAILEGUA JASOTZEKO ESKUBIDEA EMATEN DUTEN BEHARRIZANEN SAILKAPENA.

3. atala

Ondorengo kasuak, kontsumoko mailegua jasotzeko eskubidea ematen duten eta agiri bidezko frogak behar dituzten beharrizanak dira:

3.1. Istripuek edota gaixotasun larriek eragindako lesio, ondorio eta gastuetatik ondorioztatuak; zuzeneko familiako partaideren baten heriotza gorpuaren lekualdaketarekin. Gaixotasun-aseguruak estali gabeko mediku-gastuak, langileak berak edo ondorengo ahaidetasun-maila duten familiakoek izanak direnean:

- Ezkontideak edo udal-langilearekin bikote moduan urte bete baino gehiago bizi den bikotekideak, agiri bidez egoera hori egiaztatu ondoren.
- Seme-alabek.
- Gurasoek.

3.2.- Langilearen familiaren ohiko bizileku den etxebizitzaren kontra sortutako hipoteka-kredituen amortizazioak eta interesak.

3.3.- Ohiko etxebizitzaren zaharberritzea, altzariak barne.

3.4.- Langile eskatzaileak edo bere seme-alabek ikastetxe ofizialetan egindako ikasketen matrikulak edota egonaldiaren gastuak. Atal honen barruan sartzen dira halaber musika-tresnen erosketek eragindako gastuak ere.

3.5.- Trakzio mekanikodun ibilgailua erostea.

3.6. - Langilearen ezkontza.

3.7.- Seme-alaben jaiotza edo legezko adopzioa.

3.8.- Ezkontidearen edo seme-alaben heriotza.

3.9.- Langilearen dibortzioa, legezko banatzea edo ezkontzaren deuseztapena.

3.10.- Ohiko etxebizitza Beasaina aldatzea.

3.11.- Kalifikazio hori merezi duten antzeko beste inguruabar batzuk.

IV.- ATALBURUA. KONTSUMORAKO MAILEGUEN BALDINTZA OROKORRAK, ZENBATEKOAK ETA ITZULTZEKO EPEAK.

4. Atala

Kontsumorako banakako maileguak jasotzeko eskubidea duten langileek, ondoren zehazten diren gehieneko zenbateko eta itzultze-epeak lortu ahal izango dituzte:

ZENBATEKOA	ITZULTZEKO EPEA
3.000 euro	20 hileko
6.000 euro	35 hileko
9.000 euro	50 hileko

Adierazitako kopuruak ez diren beste kopuru batzuetako maileguak emanez gero, eta beti ere ezarritako gehienekoak baino handiagoak ez direla, itzultzeko erabiliko diren hilen kopurua, hileko 170 euro itzuliz ateratzen dena izango da.

Kontsumorako kreditu honen emakiden guztizkoa, urtean 1ekoa izango da kopururik handienak kontuan hartuta, eta eskaerak egindako ordena berean emango dira aurrekontuan izendatutako kopurua agortu arte.

Maileguaren zenbatekoa inoiz ere ez da izango sortu duen beharizanaren kopurua baino handiagoa.

Epeen arabera hileroko itzuli beharreko zenbatekoak, hileroko deskontatuko dira esleipenak bereganatu dituztenen nominatik.

V.- ATALBURUA. OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEKO MAILEGUAK.

5. atala

Ohiko etxebizitza erosteko maileguak jaso nahi dituzten langileek, ondoren zehazten diren gehieneko zenbateko eta itzultze-epeen arabera lortu ahal izango dituzte:

ZENBATEKOA	ITZULTZEKO EPEA
25.000 euro	12 urte

Eskaera mota honi urte egiteko urtero izendatutako kopururik handiena, aipatutako zenbatekoen modulu batena izango da.

6. atala

Eska litezkeen betebeharrak:

a) Eskaeran adierazi egin beharko da, etxebizitza ohiko bizilekutarako erosten dela eta salerosketa-kontratu, eskritura, eraikitzaera doan profesionalaren zerbitzu-errentamenduaren kontratu edo Arkitekto Elkargoak ikus-onetsitako obra-zuzendaritzaren azken ziurtagiri bidez zuritu beharko da.

b) Erosketa salerosketa-kontratu bidez zurtzen denean, seinale moduan gutxienez ere adierazten den prezioaren % 5 ordaindu izana egiaztatu beharko da eta interesatuak eskaeran adierazi egin beharko du, mailegua jaso ondorengo urte beteko epean eskrituraren kopia aurkezteko konpromisoa hartzen duela.

c) Ohiko bizilekua dela egiaztatzeko, erroldatze-ziurtagiria eskatzeaz gainera, etxebizitzaren benetako okupazioaz egindako udal-txostena, helbide fiskala kreditatzen duen ziurtagiria, osasun-zerbitzuen esparruko helbide-egiaztapena edota gaia aztertu eta esleipenen txostena egiten duen batzordeak egoki iritzi eta eska lezakeen beste edozein agiri eskatu ahal izango da.

Eskaerak aurkezteko epea, gertakaria gertatu ondorengo datatik zenbatutako urtebetekoa izango da eta gertaera-data horretan beti ere eskatzaileak funtzionario- edo langile-harremana izan beharko du. Epe hori, erosi behar den etxebizitza eraikitzen ari diren kasuan eta eraikuntza amaitu arte bakarrik luzatu ahal izango da.

Etxebizitza erosteko mailegua jasoz gero, ez da beste maileguen eskubiderik izango.

Lehendik kontsumorako mailegu bat eduki eta ohiko bizilekuarentzako beste bat eskatzen bada, etxebizitzarena emanez gero kontsumorako mailegua deuseztatu egingo da.

Ohiko etxebizitza erosteko mailegua, gehienara ere behin bakarrik jaso ahal izango da, eta hori eskuratu duen langile onuradunak ez du berriz halakorik eskuratzeko eskubiderik izango.

Ohiko etxebizitza erosteko maileguarekin bateragarria den mailegu-eskubide bat badago "premiazko beharrianen mailegu" dei genezakeena eta gehienara ere bi hilabeteko soldataren zenbatekoa duena. Mailegu hori inolako zuriatarik gabe eman ahal izango da emateko kreditua dagoenean eta lehentasuna izan dezaketene beste eskaera batzuk ez daudenean.

7. atala

Etxebizitza-mailegua emateko irizpideak:

Urtero mailegu bakarra eman daitekeenez, etxebizitza-mailegua jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eskaera bat baino gehiago izanez gero, ondorengo atal hauetan punturik gehien lortzen dituen eskaerari emango zaio:

a) SOLDATA.

Urteko 25.000 € arte: 5 puntu.
25.001 €-tik 30.000 € arte: 4 puntu.
30.001 €-tik 35.000€ arte: 3 puntu.
35.001 €-tik aurrera: puntu 1.

b) MAILEGU ESKAERA ERAGIN DUEN ETXEBIZITZAREN BALIOA: Zenbat eta balio handiagoa izan etxebizitzak, orduan eta puntu gutxiago eskatutako mailegua esleitzeko.

150.000 € arte: 5 puntu.
150.001 €-tik 180.000 € arte: 4 puntu.
180.001 €-tik 210.000 € arte: 3 puntu.
210.001 €-tik aurrera: puntu 1.

c) DESBERDINKETA: Bi eskaerak edo gehiagok puntu-kopuru berbera lortzen badute, enpresan antzinatean handiena duen langilearen aldeko ebazpena emango da, eta hala ere berdintasuna gertatuko balitz, adin gehieneko langileari esleituko zaio. Nolanahi ere, desberdinketarako beste irizpideren bat erabili ahal izango da, Batzordearen ustetan, hori gomendatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean.

d) ITXARON ZERRENDA.- Mailegua jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten baina esleipenik izaten ez duten eskaerekin itxaron zerrenda bat eratuko da hurrengo ekitaldirako edo ekitaldietarako, eta 6 d) atalean ezarritako betebeharretik salbu geldituko dira.

VI.- ATALBURUA. ESKAERAK ETA DOKUMENTUAK.

8. atala

1.Eskaerak Sasieta Mankomunitateko erregistroan aurkeztu beharko dira, eskaeraren zergatia frogatzeko adinako agiriak lagun dituztela: aurrekontuak, fakturak, etab., kontsumorako maileguak direnean eta araudi honen 6. atalean aipatzen diren agiriak ohiko etxebizitza erosteko eskaerak direnean.

2.- Ondorio horietarako frogagiritzat hartzen dira era guztietako agiri publiko guztiak eta baita BEZdun aurrekontuak eta fakturak ere, baina azken hauek urte beteko balioa izango dute.

9. atala

Mailegua aurrekontua aurkeztuta eman denean, aurrekontuari dagokion faktura, mailegua eman eta hurrengo egunetik zenbatutako 3 hileko epean ekarri beharko da.

3.2 atalean aurreikusitako hipoteka-kredituen amortizazio eta interesentzako maileguen kasuan, helburu hori duela emandako maileguaren zertarakoa hamabost eguneko epean egiaztatu beharko da.

10. atala

Mailegua eman eta ezarritako epearen barruan eskaeraren zergatia frogatzen duen agiria aurkezten ez bada, langilearen nominatik automatikoki deskontatuko da legezko gutxieneko soldataz gaindik kobratzen duen soldatari dagozkion atxikipenak aplikatuta gelditzen den zenbatekoa:

- Bigarren lanbide-arteko soldata txikienaren zenbatekoa adinakoa den lehen kopuru erantsiari, 100eko 30.
- Hirugarren lanbide-arteko soldata txikienaren zenbatekoa adinakoa den kopuru erantsiari, 100eko 50.
- Gauza bera laugarren lanbide-arteko soldata txikienaren zenbatekoa adinakoa den kopurura arte, 100eko 60.
- Gauza bera bosgarren lanbide-arteko soldata txikienaren zenbatekoa adinakoa den kopurura arte, 100eko 75.
- Kopuru hori gainditzen duen edozein kopururen 100eko 90.

11. artikulua

Maileguak ukatzeko arrazoen artean honako hauek daude: auzi-epaia dela eta, udal-langilearen nominan diru-atxikipena egiteko agindua dagoenean eta aurreko atalean deskribatutako eskalaren aplikazioaren emaitzak eskatutako maileguaren amortizazio-kuotei aurre egiteko behar adinako saldorik ez dagoenean.

12. atala

Mailegu bat eman ondoren jasotzaileari mailegua aurretiaz xedatu bezala itzultzea galaraziko dion zerbait gertatuz gero (heriotza, aurretiazko erretiroa, gaitasun-ezagatiko erretiroa, eszedentzia, lan-harremana etetea), Udalak, ahal izanez gero, itzuli gabeko kopuru osoa aldi bakarrean kobratuko dio titularrari berari edo, bestela, bere ondorengoei, egokien eta komenigarrien jotzen duen moduan.

Gainera, etxebizitza erosteko mailegua emandako kasuan, mailegu-hartzaileak, emandako kreditua itzultzeko epearen barruan, zor dituen kopuruak itzultzea bermatuko duen poliza bat egin beharko du. Zehaztasun hori, esleipena jakinarazitako egunetik zenbatutako 7 eguneko epean egiaztatu beharko da, polizaren kopia bat eta dagokion ordainagiria aurkeztuta.

Aurreko zehaztasun hori bete ondoren, onartutako maileguaren diru-sarrera egingo da. Urtero-urtero poliza horren prima ordaindu izana egiaztatu beharko da dagokion ordainagiria aurkeztuta.

13. atala

Hasiera batean, ohiko etxebizitzarentzako mailegu bat bakarrik eskatu ahal izango da, nola ezta, ezustean sortutako inguruabar aurreikusi-ezinak sortzen ez diren aldi berean beste mailegu bat ematea eragiteko.

14. atala

Zenbatekoak eta itzultzeko epeak hurrengo udal-hitzarmenetan adostu daitekeenaren arabera aldatu edo berrikus daitezke.

VII. ATALBURUA ESKAEREN AZTERKETA

15. atala.- BATZORDE TXOSTENGILEA

Eskaerak aztertzeko batzorde txostengilea, Kontuhartzaileak, Pertsonaleko Teknikariak eta Enpresa-batzordeko kide batek osatuko dute.

16. atala

Batzorde hori hilean behin bilduko da eskaerak daudenean eta eskera horiek kontsumorako maileguenak direnean. Aldiz, urtean behin bilduko da ohiko etxebizitza erosteko mailegu-eskaerak aztertzeko. Bilera egin aurretik beti ere bilera-deia egingo da urriaren lehen hamabostaldian eta data hartara arte aurkeztutako eskaera guztiak aztertuko ditu lehendik itxaron-zerrendan dauden eskaerekin batera.

17. atala

Aurreko atalean aurreikusitako bilera egin ondoren sartzen diren eskaera guztiak, hurrengo bileran aztertuko dira. Bilera hori, ohikotasunez, aurreko atalean bertan adierazitako datan egingo da.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko bototak: 17

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Urretxuko eta Itsansondoko ordezkariak)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Legazpiko plantan ontzi arinen bereizte eta sailkapen zerbitzua lehiaketa bidez kontratatzeko baldintza agiriak onartzea.

Bigarren. Deialdia egitea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Eskaintzak aurkezteko epean 15 egunekoa izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

7.- PERTSONALA: 2006. ekitaldirako plantila organiko eta lanpostu-zerrendaren onespena.

Ezagutzera eman da 2006. ekitaldirako plantila organiko eta lanpostu-zerrenda, 2005eko ekitaldiaren berdina dela.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko bototak: 17

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Urretxuko eta Itsansondoko ordezkariak)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin, 2006. ekitaldirako plantila organiko eta lanpostu-zerrenda onartu da.

8.- LEHIAKETA HUTSIK UZTEA: 2005eko uztailaren 13an Legazpiko plantan ontzi arinen bereizte eta sailkapen zerbitzua lehiaketa bidez kontratatzeko deialdia hutsik uzteko proposamena.

2005eko uztailaren 13an egindako Batzorde Errektorean, Legazpiko plantan ontzi arinen bereizte eta sailkapen zerbitzua lehiaketa bidez kontratatzeko deialdia egitea erabaki zen, baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartuz.

Deialdia 2005eko uztailaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta proposamenak aurkezteko epean ez da inolakorik aurkeztu.

Horren ondorioz, aho batez onartu da, Legazpiko plantan ontzi arinen bereizte eta sailkapen zerbitzua hutsik uztea.

9.- MANKOMUNITATEKO FINANTZAKETA SISTEMA ETA HELBURUA. Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan zaborrak bildu, garraiatu tratatu eta deuseztatzeagatik ezarritako tasei buruzko azterketaren aurkezpena.

Lehenik, 2005ean, Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan aplikatutako ZABOR TASEN AZTERKETA bat aurkezten da:

Estruktura tarifarioa:

Udaljerri guztietan tarifak hiru taldeetan sailkatzen dira:

- Etxeetako zaborrak.
- Dendetako zaborrak.
- Industrietako zaborrak.

Normalean, udalerria zenbat eta handiagoa izan orduan eta jarduera mota ezberdin gehiago izaten ditu eta talde bakoitzean (bigarren eta hirugarren taldean batez ere) tarifa ezberdin gehiago bereizten dira.

Orokorrean udaletxeek euren Ordenantzetan erabilitako tarifa-egitura oso sinplea izaten da. Mankomunitate mailan aztertutako Ordenantzen artean azpimarratzekoak dira Legazpi eta Ordiziakoak. Bi hauek dira (batez ere legazpikoa) denetan osatuenak.

Biztanleak jasotzen duen zerbitzua eta tarifen artean dagoen erlazioa:

Hondakinen alorrean zoritxarrez ez dago zabor kontagailurik. Tarifak ezartzerako orduan, aktibitate bakoitzak ustez sor ditzakeen zabor kantitate eta tipologiarekiko estimazioa egiten da.

Udal ordenantzetan tarifak ezartzea:

Tarifak normalean jarduera motaren arabera ezartzen dira.

Zenbait udalerritan bestelako indize batzuk ere erabiltzen dira, justutasuna lortu nahian:

- Langile kopurua: tailer eta fabriken kasuan (Beasainen, Lazkaon, Legazpin, Ordizian, Seguran, Legorretan)
- Langile kopurua: jatetxe eta elikadura denden kasuan (Ordizia)
- Logela kopurua: hotelen kasuan (Legazpi)

Tarifak ezartzea:

Tarifa udalarekin hitzartzeko aukera jasotzen kasu batzuetan (Ordizia)
Zenbait Ordenantzatan banakako tarifak ere azaltzen dira:

Udalerria	Jarduera	Tarifa
Ezkio Itsaso	Mandubiko Benta	213,64 €/urt
Itsasondo	Talleres Jaso, S.A.	1.500 €/urt
Ordizia	Pagosa	2.185,55 €/urt
Ordizia	Eroski	6.931,25 €/urt
Legorreta	Ontza	342,35 €/urt

Okupatutako eta hutsik dauden etxebizitzaren arteko desberdintasuna

Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan okupatutako eta hutsik dauden etxebizitzek tarifa berdina ordaintzen dute. Lau salbuespen daude bakarrik.

Ordizia	Etxebizitza hutsik: 30,08 € Etxebizitza okupatua: 60,29
Segura	Etxebizitza hutsik: 43,00 € Etxebizitza okupatua: 63,00

Zegama	Etxebizitza hutsik: 43,00 €
	Etxebizitza okupatua: 75,67
Zerain	Etxebizitza hutsik: 45,00 €
	Etxebizitza okupatua: 73,00

Hiri eremu eta baserrien arteko desberdintasuna:

Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan kaletxek eta baserriek tarifa berdina ordaintzen dute. Hiru salbuespen daude bakarrik.

Itsasondo	Etxebizitzak: 55 €
	Urrun dauden baserriak: 25 €
Segura	Etxebizitza okupatuak: 63 €
	Baserriak (astero zerbitzu 1): 52 €
Zegama	Etxebizitza okupatuak: 75,67 €
	Baserriak (astero zerbitzu 1): 56,77 €

Etxebizitzen kasuan tarifen kopurua.

Ondorengo taulan adierazten dira Sasieta Mankomunitatearen eremu barruan etxebizitzek ordaindutako zabor tasa:

Udalerrria	Tarifa etxebizitza bakoitzeko €urtean
Olaberria	25.20
Gabiria	29.16
Gaintza	38.22
Ormaiztegi	42.44
Zumarraga	42.52
Mutiloa	45.50
Beasain	46.01
Zaldibia	46.70
Altzaga	50.00
Arama	50.00
Urretxu	50.40
Idiazabal	51.00
Ezkio-Itsaso	52.08
Legorreta	53.87
Itsasondo	55.00
Lazkao	56.63

Legazpi	59.20
Ordizia	60.29
Segura	63.00
Ataun	71.60
Zegama	75.67
Zerain	79.00

Etxebizitzen bataz besteko tasa ponderatua urteko 51,60 €-tako da.

Ikusten den bezala etxebizitzek ordaindutako tasetan desberdintasun handiak daude. Bi arrazoiengatik gertatzen da hori: batetik, udalerri guztiek ez dute zerbitzuaren kostua estaltzen eta bestetik, udalerrietan merkataritzak eta industriak duten pisua oso desberdina delako.

Denden kasuan tarifen kopurua:

Etxebizitzekin gertatzen den bezalaxe, denda eta zerbitzuei aplikatzen zaizkien tasetan ere ezberdintasun handiak daude. Bi adibide besterik ez ditugu jarriko: jatetxe batek urteko 76 eta 826 € bitartean ordaindu dezake herriaren arabera eta ile-apaindegi batek 55 eta 268 € bitartean.

Denden bataz besteko tasa ponderatua urteko 119,98 €-tako da, hau da, denda batek etxebizitza batek baino bi aldiz gehiago ordaintzen du.

Industrian kasuan tarifen kopurua:

Etxebizitza eta dendekin gertatzen den bezalaxe industriei aplikatzen zaizkien tasetan ere ezberdintasun handia daude. Bi adibidea jarriko ditugu: tailer txiki batek urteko 36 eta 268 € bitartean ordaindu dezake herriaren arabera.

22 udalerrietatik 5etan bakarrik tarifak doitzen dira enplegatu kopurura.

Industrien bataz besteko tasa ponderatua urteko 277,11 €-tako da, hau da, denda batek etxebizitza batek baino bost aldiz gehiago ordaintzen du.

Tarifa taldeekiko diru-bilketa:

Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan udaletxeen diru-bilketa nagusia etxebizitzetatik dator. Batazbesteko datuak honako hauek dira.

Zabor sortzailea	Diru-bilketa (%)
Etxebizitzak	%74
Denda eta zerbitzuak	%17
Industriak	%9

Halere, datu hauek asko aldatzen dira herri batetik bestera, denda eta industrien presentzia oso desberdina baita.

	Etxebizitza	Dendak	Industriak
Altzaga	91%	9%	0%
Arama	72%	0%	28%
Ataun	95%	5%	1%
Beasain	65%	30%	5%
Ezkio-Itsaso	41%	9%	50%
Gabiria	88%	0%	12%
Gaintza	88%	12%	0%
Idiazabal	74%	7%	19%
Itsasondo	63%	4%	32%
Lazkao	79%	10%	12%
Legazpi	75%	18%	7%
Legorreta	85%	8%	7%
Mutiloa	85%	0%	15%
Olaberria	57%	21%	22%
Ordizia	79%	14%	7%
Ormaiztegi	68%	11%	21%
Segura	87%	8%	5%
Urretxu	72%	20%	8%
Zaldibia	84%	5%	11%
Zegama	88%	6%	5%
Zerain	93%	5%	3%
Zumarraga	73%	20%	7%

2005. urtean zergadun kopurura:

Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan 32.132 zergadun daude guztira.

Etxebizitzak	28.696
Denda eta zerbitzuak	2.871
Industriak	605
GUZTIRA	32.172

Udal ordenantzen arabera, auto-finantziazio maila:

Udaletxe ezberdinek dituzten dirusarrerak, mankomunitateari egiten dioten ekarpenarekin konparatuz gero bakoitzaren autofinantzaketa maila lor daiteke:

Udalerrria	Tasengatik sarrera gordinak	Mankomunitateari ekarpenak	Autofinantzaketa
Altzaga	3,500.00	6,274.38	%56
Arama	3,900.00	7,131.29	%55
Ataun	52,379.80	50,457.96	%104
Beasain	372,937.60	338,755.78	%110
Ezkio-Itsaso	23,485.80	24,583.22	%96
Gabiria	4,686.72	17,526.84	%27
Gaintza	1,911.00	7,708.03	%25
Idiazabal	54,896.00	60,454.77	%91
Itsasondo	21,240.00	22,899.72	%93
Lazkao	149,804.95	154,954.61	%97
Legazpi	272,415.00	246,837.23	%110
Legorreta	35,802.49	42,279.94	%85
Mutiloa	4,642.50	17,562.52	%26
Olaberria	17,901.12	54,565.95	%33
Ordizia	295,836.16	274,338.50	%108
Ormaiztegi	35,934.12	43,738.59	%82
Segura	35,266.00	42,114.24	%84
Urretxu	187,924.40	181,801.81	%103
Zaldibia	34,477.24	48,899.34	%71
Zegama	44,603.84	43,597.17	%102
Zerain	11,618.00	13,272.40	%88
Zumarraga	249,770.80	290,002.42	%86
TOTAL	1,914,933.54	1,989,756.71	%96

Orohar udaletxeen auto-finantziaketa altua edo oso altua da, batazbeste %96koa.

Auto-finantziaketa ertaina edo baxua dutenak honako hauek dira: Gaintza (%25a), Mutiloa (%26), Gabiria (%27a), Olaberria (%33a), Arama (%55a) eta Altzaga (%56).

5.000 biztanle baino gehiago dituztenetan: %100eko auto-finantziaketa (Zumarraga ezik: %86a)

Kobratzearen kudeaketa:

- Udaletxe gehienek Udal Administrazioaren bidez egiten dute kobraketa (udaletxeak berak egiten du alegia).
- Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren bidez: Segura, Zegama, Gabiria, Ezkio Itsaso, Ormaiztegi.
- Aguas del Norte, S.A.ren (ANSA) bidez: Zumarraga, Urretxu.

Jarraian adibide gisa aurkezten da, zabor tasen ezarketa eta kobraketa era amankomunatu egin ezker, hiri hondakinak jasotzeagatik, garraiatzeagatik, tratatzeagatik eta deusezteagatik eta harekin loturiko gainerako iharduerengatik ordaindu beharreko tarifen ADIBIDE bat.

Adibide hau prestatzeko,

- Uraren eta zaborraren ziklo integrala daramaten erakundeei egin zaie kontsulta.
- Udaletxeek, IZFE-k eta Ur Kontsorzioak emandako datuak erabili dira. Datuak 2005ekoak dira.
- Iharduera industrialen kasuan GOIEKI eta UGGASaren industria katalogoa erabili da datuak kontrastatzeko.

2005 urtean udaletxe guztien artean Sasieta mankomunitateari 1.989.757 eurotako ekarpena egin zioten. Diru hori mankomunitateak berak herritarrengandik bildu behar izan balu, diru horri zerga-bilketa egiteko pertsonala eta egituraren kostua erantsi beharko litzaioke, hau da, 111.900 euro, (hiru pertsona eta gastu administratiboak barne). Beraz, guztira 2.101.657 euro.

Diru-bilketa egiterakoan etxebizitza, dendak eta industriaren arteko proportzioa %70, %20 eta %10 balitz hurrenez hurren, sektore bakoitzaren ekarpena honako hau izango litzateke.

Kostu-banaketa:		
Etxebizitzak	%70	1.471.160
Dendak eta zerbitzuak	%20	420.331
Industriak	%10	210.166
GUZTIRA	"100	2.101.657

Kontutan izanik, 28.696 etxebizitza genituela 2005, etxebizitza bakoitzari 51,27 eurotako kostua suposatuko lioke. Halere azpimarratu hau adibide bat baino ez dela, zeren kostu-banaketa egin baino lehen tarifazio-azterketa sakon bat egin beharko litzateke eta azken erabakia erabaki-organuen esku egongo litzateke.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean lorategietako mantenimendu lanetan sortutako adar eta belarren kudeaketaren inguruan Diputazioak jarrera aldatu duen galdetzen da. Erantzuna ezezkoa da. Udaletxe edo mankomunitate bakoitza arduratu behar du material horietaz. Une honetan Ormaiztegiko konpostgune enpresara doa eta bertan horrekin sortutako konposta eramaleei saltzen zaie.

Eta tratatzeko gairik ezean bilera gaueko bederatzia eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta bidali dut.